



**ALTONAGA, Kepa**  
**Back to Leizarraga**

Iruña: Pamiela, 2015  
 123 or. ; 19 cm  
 ISBN: 978-84-7681-886-2

### Euskara errazaren zailtasunak

Norbaitek galdetuko balit zer balorazio egiten dudan Altonaga irakaslearen liburuaz, balantzan zerk duen pisu handiago, baietak edo ezetak, zalantza gabe baietzaren alde nago. Liburua ongi idatzia dago, egileak euskara-molde aski egokia erabiltzen du, oso arin irakurtzen da, eta irakurlea nekerik gabe joanen da idazlearen eskutik lehenbiziko orrialdetik azkenerraino. Ez da guti. Mahai gainera ekartzen dituen gaiak, gainera, interes handia dute euskaltzaleendako. Jakina, iritzi batzuk eztabaidagarriak izan daitezke (eta eztabaidatuko ditut), hautatu duen euskara motarekin ere batzuetan ez gara bat etorriko, gustatzen ez zaigulako edo, gure ustez, hizkuntza eredia sobera bortxatzen duelako. Badira inkoherentzia batzuk (“pekatu” / “bekatu”, esaterako), badira arrotz egin zaizkidan erabilera batzuk (“baitan”-en kasua nabarmena da, baina horretan beldur naiz borroka galdua dudala,) eta editoreari ergatiboren batek huts egin dio. Baina hori bigarren mailakoa da aipatzen ari naizen balorazio orokor honetan. Zoritxarrez, bakarrak ikusten ditugu holakoak euskaraz argitaratzen diren liburuetan. Lana gomendagarria da: nik gauza asko ikasi dut, eta zenbait gairen gainean pentsatzeko aukera ere eman dit. Eta badu, gainera, autobiografia puntu bat batzuetan, eta horrek hurbiltasun berezia ematen dio testuari.

Liburua idazteko, lehen gustukoa ez zuen Amuritz bertsolariak hizkuntzari buruz egin dituen burutazioak ematen dio abiapuntua Altonagari: gaur egun darabilgun hizkuntza “deskolokatua” dago (“deskojonatua”), eta hizkuntza estandarra “indefinizio”, “anbiguotasun” eta “ausarkeriaz” bete da. Babelizazioa eta heresia sortzeraino. Hori nabarmenago gertatzen da testu edo diskurtso zientifikoan, non zehaztasun falta (batez ere terminologian) begien bistakoa baita. Garbizalekeria da kalte horren errudun, Leizarragak aukeratu bidea ibili ordez (sintaxian perpaus erlatibo *anaforikoen* eredia; lexikoan beldurrik gabe inguruko hizkuntzetako hitz landuak erabiliz, eta abar) nahiago izan baitugu garbitasuna erabili, hizkuntzaren barneko baliabide mugatuei behatu, eta horretaz baliatu gure hizkera estandarra garatzeko. Ezinbestekoa dugu, Arestik bere garaian egin zuen gisa berean, *back to Leizarraga* egitea, eta euskaran ere kanpoko hizkuntza arrakastatsuekin egiten dena egiten saiatzea. Norbaitek aspaldi hautsi zuen bidea berriz ere konpondu beharra da, eta nola Amurizak aurkitu dion tokia Arestiri bertsolarien artean, euskarak berak ere hala ireki behar ditu begiak, armairu barnean behatu eta han dauden hitz eta molde guztiez beldurrik gabe baliatu: erreferentzia adjektiboez, konparazione.

Argudiobidea indartzeko historian egin diren zenbait oker adierazgarri aipatzen ditu, erakusgarri gisa, zalutasunez mugituz egile batetik bestera. Dotrinekin hasi ginen, eta nahiago izan genuen “Arrokeriarentzat, apaltasuna/ Zekenkeriarentzat, eskuzabaltasuna / Aragikeriarentzat, garbitasuna / Asarrekeriantzat / garbitasuna” bezalakoak lehenetsi, ezen ez “Soberbiaren contra, umildadea / Avariciaren contra, larguezara / Lujuriaren contra, castidadea / Iarren contra pacienciará”, bigarren esateko modua erdaldunago zelakoan lehenbizikoa baino. Ordea, horrekin hizkuntza tratatu genuen, zehaztasuna galduz, multzo bateko eta besteko hitz

horiek ez baitira batere parekoak. Holakoetan esanahiak iraultzeko arrisku handia dago: bibliaren geziar itzulpenak, adibidez, jatorrian “andre gazte” zena “birjina” bihurtu du, eta hortik dogma bat eta guzti sortu da, itzulpen ixtrin batean oinarriturik. Itzulpen lanak aipatzen ditu Altonaga irakasleak, bai literaturakoak, bai zientzia liburuetakoa (kritika zorrotza egiten die EHUko ZIO bildumako liburu batzuei). Anitz adibide, biziki politikak, literaturatik eskuratu ditu erakutsi nahi duena funtsatzeko. Kritika egiten du, argudiobide sendoekin itxuraz.

Hizkuntzaren eredu gaitzesgarri horren harira bi gai ukitzen ditu, batez ere: eredu estandar landuak behar litzukeen –eta ez dituen–, ezaugarri batzuk, eta itzulpenek, bai literaturakoak bai zientzia mailakoak bete behar litzuketen –eta betetzen ez dituzten–, zenbait baldintza, batez ere terminologian: “euskara leizarragatarrago bat” behar dugu “komunikazioa mailaz igotzen denean, hau da, hegaldi domestikoetatik haratagoko kontuetan aritzen garenean, hegaldi transozeanikoetan” (108. or.) ibiltzeko. Aukeratu dituen adibideetako itzulpenak ez dira batere fidelak, haren ustez, eta itzultzaileak “asmatze” (“kreazio”) lana egiten du maiz, hizkuntza berriaren xarma jarri jatorrizko hizkuntzan idatzitako testuaren gainean. Oreka behar da fidel-tasunaren eta transparentziaren artean, eta Altonagak nahiago ditu, ororen gainetik, itzulpen “onak eta, gainera, fidelak”. Onak, jatorrian esan nahi dena errespetatu behar delako. Fidelak, errespetu hori testu berrian deus ere berririk gaineratu gabe egin behar delako.

Kontua, ordea, beldur naiz ez dela hain sinplea. Nork ez du nahi hori? Ba al da munduan hori nahi ez lukeen itzultzailerik? Kepa Altonagaren liburuak badu, nire ustez, akats bat handia: oso asistematikoa da, asistematikoezia, eta berez aski desberdinak diren arazoak zaku berean sartzen ditu. Zientzialari bezala, berak badaki ongi aski hori egitea ez dela batere egokia, arazoak ongi zedarritu behar baitira, mugak eta hesiak zehaztasunez definitu, eta barnean gertatzen dena metodologia sistematikoa batekin aztertu. Argudiobidea, gainera, anekdotikoezia iruditzen zait batzuetan. Ez, jakina, aipatzen dituen gaiengatik. Horiek garrantzi handikoak dira, baliteke diagnosian ere zuzen ibiltzea anitzetan, baina –liburuko gai nagusi batzuk aipatuko ditut– **euskara estandarra, euskara estandar landua, itzulpena, literatura itzulpena eta liburu zientifikoaren itzulpena** aski gauza diferenteak dira, denak hizkuntzarekin lotuak baldin badira ere. Maila horiek, gutxienez, ongi berezi behar lirateke. Baina Kepak denei buruz hitz egiten du, mugak jarri gabe, orain anekdota hau edo adibide hau hartuz eta hurrengoan beste hura, garatu nahi duen argumentazioan ongi etorriko direlakoan. Baina hezurrez aritzea, edo bihotzaz eta gibelaz, aski gauza desberdinez aritzea da, denak gorputz atalak badira ere. Jakina, gauzak modu asistemikoan lantzen badira,aldi bakoitzean handiak eta hemendik komeni zaidana hartuz, inpresioa eman daiteke, irakurketa arin batean, baieztatzen dena ongi probaturik gelditzen dela. Probaturik, beharbada: ez, ordea, frogaturik.

Pentsatzen dut berak aipatzen dituen puntu nagusi anitz itzulpengintzako ikasketen lehenbiziko ikasturtean aztertzen direla: nola lortu, esate baterako, fidel-tasuna jatorrizko testuari, hizkuntza berrian gardentasuna galdu gabe. Nola lortu testu txukuna, ona, egokia, euskara landu duenak erraz ulertuko lukeena, horrekin jatorrizko testuak esaten duena behar bezala errespetatuz, eta behar duen fidel-tasuna mantenduz. Hori da edozein itzultzaile aurkitzen duen lehenbiziko arazoa. Adibide gisan parean jartzen dituen itzulpen testuetan berehala ikusten dira desberdintasunak, ongi ikusiak, eta biluzik uzten ditu hutsak, ongi utziak. Zaitzegik eta Etxepare medikuak egindako testuak aski argigarriak dira: lehenbizikoa “deszifratu” behar da (“inintelligiblea bainoago inpraktikablea begitandu zait”, 28. or.), bigarrena gaiak dakienak berehala atzemanen du. Hala ere, nahi nuke jakin nik Altonagak berak zer jarriko lukeen kritikatzin dituen testuen parean, nolako itzulpena eskainiko ligukeen, nola baliatuko litzatekeen kasu horietan Leizarragaren ereduaz eta euskara transozeanikoaz. Baina holakorik ez dut deus aurkitu. Nik neuk beti izan ditut arazo handiak neronek sortutako testuekin: zer bait euskaraz idatzi eta erdaraz jarri nahi izan dudanean, benetan zailtasunak izan ditut. Eta aspaldi erabaki nuen bi bertsio zeharo desberdin egitea, berriak, zein bere aldetik, ez bainintzen gai sentitzen testu fidel eta garden berria sortzeko. Itzulpenen arazo hau hau ez da berria, baizik aski zaharra.

Ez ditut hona ekarriko aski ezagunak diren filmetako izenburuak (*High Noon* jatorrizkoa *Solo ante el peligro* bihurtu zuten gaztelaniaz, hitzak biziki ongi nahasiz; *Rosemary's Baby*, ordea, *La semilla del diablo* izan da; *Pulp Fiction* bera *Tiempos violentos* Latinoameriketan,

eta *The Astronatu's Wife* filma *La cara del terror* bihurtu zuten). Aguirre lehendakariak *De Guernica a Nueva York pasando por Berlin* liburu ezaguna idatzi zuen. Bera bizi zela argitaratu zen Estatu Batuetan ingelesez: *Escape via Berlin*. Ondoko urtean Britainia Handian argitaratu zuen: *Freedom was Flesh and Blood*. Eta hil ondoan beste argitalpen bat berriz ere Estatu Batuetan: *Escape via Berlin. Eluding Franco in Hitler's Europe*. Zer gertatzen da hor? Itzultzaileak ez ziren ohartu gauza desberdinak esaten ari zirela? Aguirrek berak hain ingeles gutxi zekien non ez baitzen konturatu nola trabatzen zioten jatorrian esana? Edo beste zerbaite dugu esku artean? Altonagaren aholkua segituz, horrek erakusten duen zehaztasun falta guztiz arbuia garraia da. Egileak berak esan beharko luke, aizu hori ez, ez da hori nik idatzi dudana. Baina egileak ez zuen holakorik egin. Zergatik ote? Nola itzuliko ote dute kultura nomada dutenek “Back to Leizarraga” zioen Aresti haren *Nire aitaren etxea defendituko dut*? Nola, ez etxerik ez otsorik ez badute? Edo Iparburuan? Posible da holakorik egitea hitzak *deskolokatu* gabe, edo, bestela, itzulpen hori egitea ezinezkoa dela onartu behar du? Baina behin hitzak deskolokatzeko (hau da, hain egokiak eta fidelak ez diren hitzak hautatzeko eta aldatzeko) bidea hartuz gero, *baserria* deitu beharrean *iglu* deituko diogu Iparburuko bizitokiari, edo *denda* basamortuko etxe ibiltariari, edo *otsoaren* pareko beste animalia baten izena jarriko dugu itzulpen berrian, hango irakurleak animalia bati buruz —eta ez edozein animalia bati buruz— ari garela uler dezan? Kontua ez da ezin ditugula hitzak “deskolokatu” (ez zait batere gustatzen termino hori, baina berak erabiltzen duenez nik ere ibiliko dut), baizik itzulpen egoki batean noraino joan gaitzkeen bide horretatik: *kriket* erabili ordez *bolajokoa* erabiltzeraino bablez? (“*kroketean* barik *boloetan*” dio, 42. or.)

Goian aipatu dut berak dakarren bekatu larrien dotrina bateko zerrenda hori. Jakina, oraingo begiekin behatuz pentsa daiteke gertatzen dela (zehatzago, nahi bada) “soberbia” hitza “harrokeria” baino. Egokiago, beraz. Gutxiago deskolokatu, bortxatu gabea. Edo “avaricia” hitza “zekenkeria” baino. Batez ere espainolez jakinik, zeren ez ingelesez ez frantsesez ez baita hala esaten (nagusiki bederen). Zer gertatzen da orduan? Euskara zehatza (goa) erabiltzeko espainiera jakin behar da lehenik? Hori da oraingo begiekin ikusirik. Baina atzera egiten dut nik: gure aitaxi zenarendako egokiagoa ote zen “soberbia” edo “umildadea” erabiltzea “harrokeria” edo “apaltasuna” baino? Hura txinera zen, nola izan den txinera berriki arte jende anitzendako. Erdara ikasten hasi garen arte. Ez edozein erdara: gaztelania.

**Euskara estandarra** aipatzen du behin baino gehiagotan, eta batzuetan **estandar landuaz** ari da. Gogoz gelditu naiz zein izan daitekeen euskara estandar landu horren erueda Altonagarentzat. Besterik ezean berak idatzi duen liburua izan daiteke modelo horren erakusgarria. Eta, diot nik, hain modu xamur eta goxoan izkiriatuak diren lerro horiek irakurtzen ditudanean, “desafekzio”, “erremisizentzia”, “fatidiko”, “inpresentable”, “indefendable”, “klaribidente”, “pertinente”, “praktikable”, “ilustratibo”, “ininteligible”, “deszifratu”, “inpraktikable”, “plasmatu”, “periplo”, “traszendenzia”, “sinsorgo”, “estridente”, “terreno”, “posibilitate”, “pertinente”, “fueratu” edo holako dozenaka hitzak kendurik (gehiago liburuaren lehenbiziko erdian, nik uste, bigarrean baino), diot nik, haren euskara estandar landua eta nire euskara estandar landua ez direla hain desberdinak. Nik errespetatzen dut Kepak hola koak hautatzea, eta nahi duen esanahia ematea hitz horiei. Egiten duen euskalkien arteko hibridazioa eta biziki kuriosoak egiten zaizkidan hitz batzuk han-hemenka sartzea errespetatzen diot, gogoko ez badituz ere. Baina etxean “labadora” edo “fregona” erabilirik ere, testuetan haien ordeko egokiagoak ematen saiatuko naiz, aurkitzeko gai banaiz bederen. Bestela ere, ez da ezer gertatzen: aspalditik dakigu hitzen esanahia arbitrarioa dela, eta hizkuntzak ez direla laborategietan aldatzen. Azkenean hitzuneak dute hitza eta “sinsorgo” nahiago badute “txotxolo”, “ergel” edo “ilupa” baino, ni ere prest nago “sinsorgo” jartzeko hurrengo liburuaren izenburuari. Baionan uler dezaten, hori bai, ohartxo bat jarriko diot hori lehenago “ergela” zela argituz. Baina hautatu erueda, zeinarekin Kepak irakurleak hezi nahi baititu “euskara errazaren urmaeletatik haratago ausart daitezen” (121. or.) ez da biziki urrun-tzen praktikan hemen nik ibiltzen dudana honetatik.

Esan bezala, kontua da noraino joan gaitzkeen holako proposamenetan, hizkuntza zehatzago egin nahi horretan. Adibide bat eman ondoren, hau gaineratzen du Altonagak:

“Esan ohi denez, botoi bat ekarri dut erakusgarri gisa, fidelitasunari zor diogun –eta aurkitu ez dudana– atxikimendu obsesiboa ikustarazteko”. Esan ohi denez? Non? Botoia non galduta ote dudana ibili naiz begira, baina Keparen botoia bestelakoa da, ez baita inolako botoirik hor, berehala konturatu naizenez: beldur naiz erdara jakin gabe, barka, gaztelania jakin gabe, hori ulertzeko lana izango duela Espainiatik kanpoko edozein euskaldunek.

Zehaztasuna eskatzen du Kepak. Eta arrazoi osoa du hori eskatzeko. Baina ez dakit nik, bada, *ghost towns* horiek aipatzen dituenean (noizbait bizitza izan eta gero abandonatuak izan diren herriak) mamuak bizi diren herriak (*mamu herriak*, berak dioen bezala, 72. or.) diren, edo, egokiago, mamu bihurtu diren herriak, *herri mamuak* alegia, izatekotan ere. Edo *herri hustuak*, ingelesak ez du kontu horietan ahalkerik eta konplexurik hizkuntzarekin. Eta ez dakit zehatza den esatea “Consuelo Bergesek *En busca del tiempo perdidoren* lau tomo itzuli bazituen ere” (41. or.), bistan baita C. Bergesek ez zuela izenburu hori daraman libururik itzuli, baizik *À la recherche du temps perdu* izena zeraman beste bat, beste toki batzuetan ongi zehazten duen gisa. Ikusten denez, hitzak deskolokatzeko ez da zaila, hitzak zuzen kolokatu nahi dituenarentzat ere. Pixka bat gorago ikusi dugu nola ibiltzen duen Altonagak “kroket”, *kriket* jokoaren euskal ordaina. Harritu nau, zeren Europako eta munduko hizkuntza transozeaniko gehienetan ez da dudarik “kri-” edo “kre-” erabiltzen dutela hor, eta ez hain kriketa ematen duen “kro-ket” hori. Ez dakit hori den fidelitasuna izatea jatorrizko testuari. Txikikeriak dira, badakit, baina ez Altonagak salatzen dituenak baino ttipiagoak.

Kepak harridura erakusten du anitz euskaldunek (euskaldun ikasleek) nahiago dutelako liburua erdaraz irakurri, euskal ordaina aldamenean izanik ere. Eta ikasle horiek euskaraz ari omen ikasketak egiten. Baina urrunago ere joaten ahal zen lasai aski: eskolan dituen biologiako euskal ikasle gehienak erdaraz arituko zaizkio buelta eman orduko. Edo zuzenean bere aitzinean. Pentsatzea horren errua (ez dio espresuki hala, baina hori bakarrik ondoriozta daiteke liburuan dioena kontuan izanik) euskal hitzen edo sintaxiaren “deskolokazioa” dela, ez dut uste batere zuzena den. Arazoa aise sakonagoa baita. XVII-XVIII. mendeetan euskarazko liburuak euskaraz zekitenendako bakarrik gelditu omen ziren (101. or., niretako misterioa da hori, ez baitakit beste norendako ere gelditu behar zuten). Kepak aurkitu duen erruduna hitzen desegokitasuna da, zehaztasun falta. Edo sintaxia: mota bateko perpaus erlatiboen baztertze hori. Ez da errazago pentsatzea ez dela euskara ereduaren kontua baizik euskaldunena? Axularrek zioen gisan, euskaldunek dutela falta, eta ez euskarak? Euskaldunek euskara albora utzi eta erdara nahiago badute, haien borondate hutsa izan daitekeela? Edo baztertzen duen hizkuntza horretan hain seguru ez sentitzea (berdina izanik euskara batua edo euskara deskolokatua)? Euskara giglikoa da anintzendako, baina ez ereduagatik (izan dadin eredu hori batua, euskalki bat, Arestirena, Amurizarena, Altonagarena edo Zaitegirena) baizik euskaragatik beragatik.

Nire ustez, eta hau da kontua, Kepak nahi duena ezin da bete, itzulpen egokiak egitea (egokiak, berak “egokitatzat” jotzen duen hori, jakina) ezinezkoa baita. Ustekizun faltsuan oinarritzen da haren tesi nagusia. Baina horrek ez du arazorik sortzen, hala ere. Aspaldi ikasi genuen konpondu ezin diren arazoak ez direla arazo. Hizkuntzen egiturek, hitzek, esamoldeek... ez dute aniztatan pare-parekorik aldameneko hizkuntzan. Ez eta hizkuntza beraren barnean ere: edateko “tinto” bat eskatzen baduzu, Colombian kafea aterako dizute, eta ardo Donostian. Eta Donostian ateratakoari *gorria* deituko diote batzuek, eta *beltza* bertze batzuek. Perpaus “inekibokoak” ez dira existitzen.

Horrek deusezten du Kepak dioena? Ez, inondik ere ez. Zientzia liburuetan ezinbestekoa da berak nahi duen zehaztasun hori zaintzea. Eta horrek badu kostu bat hizkuntzarandako, erregistro berriak garatu behar baitira. Ez nolana, hala ere: euskal tradizioan “hizkuntza” eta “lengoaia” (bere aldaerekin) erabili izan dira. Biek gauza bera esan nahi dute:

zer lengoaiatan erran duzu meza?; har ezazu lengoaia horiek dakiten norbait; lengoaia baten ortografia, eta abar. Ez da lengoaia gizakiak duen berezko ahalmena, baizik hizkuntza jakin bat (frantsesa, euskara edo ingelesa), edo mintzaira bat. Axularrek bereizten ditu hizkuntza eta lengoaia... gauza bera esateko: Zeren hori da ifernuko erdara, lengoaia eta hizkuntza. Ingelesak ere hitz bakarra du bi kontzeptuak adierazteko: *language*. Gaztelaniak (eta frantsesak) *lenguaje* (ahalmena) eta *lengua* (hizkuntza jakin bat) bereizten ditu. Zer egin behar du euskarak? Batzuen ustez aski da, ingelesak bezala, bat hautatzea: *hizkuntza*. Beste batzuek bereizketa proposatzen dute: *hizkuntza*, baina *lengoaia informatikoa* (adibidez), *lengoaia* hitza bultzatuz, baina euskaraz izan ez duen esanahia emanez. Badu zentzurik horrek? Ezetz uste nuen nik, erakusketa bat zela-eta ondoko hau itzultzea eskatu zidaten arte: “Lenguaje y lenguas”. Baina hizkera terminologiko berezi hori zientzialariek berek erabaki beharko dute: noiz, jatorrizkoarekin eta zientzia esanahiarekin zintzoak izan nahirik, euskara bortxatza behartua ikusten duten bere burua, eta noiz, euskararekin leial izan nahirik, zientziaren adieraziak bortxatzeko arriskuan erortzen diren. Errezeta sinplerik ez da hor. Baina ez dut uste horrek literaturan eta bestelako erregistroetan indar bera duen. Itzultzaileak askeago ikusi behar du bere burua, ezinbestez.

Liburua irakurri behar da: irakurri, denok ohar gaitezen noraino eraman gaitzakeen garbizaletasunaren kontuak. Behin irakurri ondoren, horiek guztiak kolkoan sartu behar dira, eta apaltasunez onartu kontu hauetan konpontzen ahal ditugun kontuak konpontzen saiatuko garela, eta beste hainbestetan gure ahaleginek ez dutela, beharbada, nahi genukeen bezalako arrakastarik izanen. Ezin dutelako izan.

Pello Salaburu



**IZTUETA AZURMENDI, Ibai**  
Cultura vasca vs Euskal kultura

Donostia: Utriusque Vasconiae, 2015  
379 or. ; 21 cm  
ISBN: 978-84-942531-4-0

Fernando Lázaro eta Vicente Tusónen batxilergoko *Literatura española* dakarkit burura Ibai Iztueta Azurmendiren azken liburuak. Espainiako errege akademiaren zuzendari zenak idatzitako eskuliburuak Espainiar literaturaren bilduma egitea omen zuen xede. Hegoaldean 1980. hamarkadan derrigorrezko ikasketa programako liburukoteak gaztelaren aurreko erromantzeetan idatzitako epika eta poetikatik hasi eta XX. mendeko lehen laurdeneko egileen berri ematen zuen. Bazuen liburu hark, ordea, tranpa bat gordea: Espainiar estatuan idatzitakoez gain, Latinoamerikako hainbat egileren lanak biltzen zituen ere. Alabaina, *Literatura española* ez zen egileen aburuz soilik espainieraz idatzitakoa, baizik eta Espainia delakoan